

GIPUZKOAKO LURRALDE HISTORIKOKO
XEDAPEN OROKORRAK

1

DISPOSICIONES GENERALES DEL
TERRITORIO HISTÓRICO DE GIPUZKOA

GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA

OGASUN ETA FINANTZA DEPARTAMENTUA

487/2020, Foru agindua, abenduaren 14koa, «jarduera ekonomikoetan izandako galerak konpentsatzeko kenkaria» pertsona fisikoen errentaren gaineko zergan eskatzeko CBK ereduua onetsi eta hura aurkezteko era eta epea ezartzen dituen.

Maiatzaren 27ko 241/2020 Foru Aginduaren bidez, onetsita geratu zen «jarduera ekonomikoetan izandako galerak konpentsatzeko kenkaria» pertsona fisikoen errentaren gaineko zergan eskatzeko erabili beharreko CBK ereduua, baita hura aurkezteko era eta epea ere.

Eredu horrek ahalbidetzen zuen aplikatzea maiatzaren 26ko 5/2020 Foru Dekretu-Araua, COVID-19ak eragindako osasun larrialdiaren ondoren ekonomia suspertzeko koitunturazko zerga neurriei buruzkoak, 1. artikuluan aurreikusten duen aparteko kenkaria, 2020an zenbatetsitako galerak konpentsatzea helburu duena. Kenkari hori pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren 2019ko autolikidazioaren kuota likidoan bakarrik aplika zitekeen.

2019ko eta 2020ko zergaldietan jarduera ekonomikoekin etekin izan eta, azken zergaldi horretan, jarduera horien etekin garbi negatiboa lortzea espero zuten zergadunek aplikatu ahal izan zuten kenkari hori, betiere baldintza hau betez gero: 2020ko lehen sei hilabeteak dagokion negozio zifraren zenbateko garbia ez izatea handiagoa 2019ko zergaldi osoari dagokion negozio zifraren zenbateko garbiaren 100eko 25 baino.

Abenduaren 1eko 11/2020 Foru Dekretu-Araua, COVID-19aren bigarren olatuak eragindako ondorioak arintzeko zerga arloko presako neurriei buruzkoak, kenkari hori aplikatzeko aukera berreskuratzen du, baina, kasu honetan, 2020. urtean benetan izandako galerak kontuan hartuta.

Oraingo honetan, kenkaria zergadunei aplikatuko zaie baldin eta 2019ko eta 2020ko zergaldietan jarduera ekonomikoekin etekin lortu badituzte eta azken zergaldi horretan jarduera ekonomikoak izan duen etekin garbia negatiboa izan bada.

Kenkariaren oinarria 2020ko zergaldiko etekin garbi negatiboaren zenbatekoa izango da. Oinarri horrek ezin du inola ere gaituzte zergadunaren jarduera ekonomikoak 2019ko zergaldian izan duen etekin garbi positiboaren zenbatekoa. Ondorio horietarako, etekin garbitzat hartuko da Gipuzkoako Lurralde Historikoko Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko urtarrilaren 17ko 3/2014 Foru Araua 65. artikuluan b) letran aipatzen duen saldoa.

Kenkaria kalkulatzeko, haren oinarriari aplikatzen zaio zergadunaren 2019ko zergaldiko oinarri likidagarri orokorrari dagokion batez besteko karga tasa, aipatutako 3/2014 Foru Arauaren 75. artikuluko 2. eta 3. apartatuetan eta 77. artikuluan aurreikusitakoaren arabera kalkulatu. Kenkariak ezin du inola ere gaituzte zergadunak zerga hau dela eta 2019ko zergaldian izandako kuota likidoaren zenbatekoa.

DIPUTACIÓN FORAL DE GIPUZKOA

DEPARTAMENTO DE HACIENDA Y FINANZAS

Orden Foral 487/2020 de 14 de diciembre, por la que se aprueba el modelo CBK «Deducción por compensación de pérdidas en actividades económicas» del impuesto sobre la renta de las personas físicas, así como la forma y plazo de su presentación.

Por Orden Foral 241/2020 de 27 de mayo se aprobó el modelo CBK «Deducción por compensación de pérdidas en actividades económicas» del impuesto sobre la renta de las personas físicas, así como la forma y plazo de su presentación.

A través de dicho modelo se posibilitaba aplicar la deducción extraordinaria contemplada en el artículo 1 del Decreto Foral-Norma 5/2020, de 26 de mayo, sobre medidas tributarias coyunturales destinadas a la reactivación económica tras la emergencia sanitaria Covid-19, a través de la cual se compensaban las pérdidas estimadas en 2020 sobre la cuota líquida aplicable exclusivamente en la autoliquidación del impuesto sobre la renta de las personas físicas correspondiente al periodo impositivo de 2019.

Dicha deducción fue aplicable por los contribuyentes que obteniendo rendimientos de actividades económicas en los periodos impositivos de 2019 y de 2020, previeran en este último periodo impositivo un rendimiento neto negativo de dichas actividades, siempre que el importe neto de la cifra de negocios correspondiente al primer semestre del año 2020 fuera, como máximo, del 25 por 100 del importe neto de la cifra de negocios correspondiente al periodo impositivo completo de 2019.

El Decreto Foral-Norma 11/2020, de 1 de diciembre, sobre medidas tributarias urgentes para paliar los efectos de la segunda ola del COVID-19, reabre la posibilidad de aplicar dicha deducción pero en este caso teniendo en cuenta las pérdidas reales sufridas en el año 2020.

En esta ocasión la deducción es aplicable por los contribuyentes que obtengan rendimientos de actividades económicas en los periodos impositivos de 2019 y de 2020 y hayan obtenido en este último periodo impositivo rendimiento neto negativo en dichas actividades.

La base de la deducción es el importe del rendimiento neto negativo correspondiente al periodo impositivo 2020. Dicha base en ningún caso podrá superar el importe del rendimiento neto positivo de la actividad económica del contribuyente correspondiente al periodo impositivo de 2019. A estos efectos, se entenderá por rendimiento neto el saldo previsto en la letra b) del artículo 65 de la Norma Foral 3/2014, de 17 de enero, del Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas del Territorio Histórico de Gipuzkoa.

La deducción es el resultado de aplicar sobre la base de deducción el tipo medio de gravamen correspondiente a la base líquida general del periodo impositivo de 2019 del contribuyente, calculado considerando lo previsto en los apartados 2 y 3 del artículo 75 y en el artículo 77 de la citada Norma Foral 3/2014. La deducción en ningún caso podrá superar el importe de la cuota líquida del impuesto del contribuyente correspondiente al periodo impositivo de 2019.

Kenkari horren emaitzari kendu egin beharko zaio, hala badagokio, lehen aipatutako 5/2020 Foru Dekretu-Arauaren 1. artikuluan aurreikusitakoaren arabera aplikatutako kenkariaren zenbatekoa.

Artikulu honetan aurreikusitako kenkaria aplikatzen duten zergadunek 2020ko zergaldiko pertsona fisikoen errentaren gaineko zergan jarduera ekonomikoen etekin garbi handiagotzat hartu beharko duten zenbatekoa 2019ko zergaldian kenkariaren oinarri gisa konputatutako etekin garbi negatiboa izango da.

Aurrekoa hala izanik ere, kenkaria zergadunaren zergaren kuota likidoak mugatu duenean, 2020ko zergaldiko jarduera ekonomikoen etekin garbi handiagotzat hartu beharreko zenbatekoa eragiketa honen emaitza izango da: egindako kenkaria zati 2019ko zergaldiari dagokion batez besteko karga tasa.

Abenduaren 1eko 11/2020 Foru Dekretu-Arauaren 1. artikuluko 5. apartatuak dio zergadunek eskaera bat aurkeztu behar dutela, eta 6. apartatuan xedatzen du Ogasun eta Finantza Departamentuko foru diputatuak foru agindu bidez ezarriko duela zer eredu erabiliko den kenkariaren aplikazioa eskatzeko, hura noiz eta nola aurkeztu beharko den, eta zer beste alderdi hartu beharko diren kontuan kenkariaren aplikazioarekin lotuta.

Horrenbestez, hau

XEDATZEN DUT

1. artikulua. *CBK eredu onestea.*

Onetsita geratzen da CBK eredu, «jarduera ekonomikoetan izandako galerak konpentsatzeko kenkaria» izenekoa, foru agindu honetan eranskin gisa jasotzen dena.

2. artikulua. *CBK ereduaren aurkezpenaren eremu subjektiboa eta bete beharreko baldintzak.*

Bat. Pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren zergadunek CBK eredu aurkeztu ahal izango dute, baldin eta, 2019ko eta 2020ko zergaldietan jarduera ekonomikoen etekinak lortuta, 2020an izandako galerengatik 2019ko aparteko kenkaria aplikatzea eskatzen badute, hain zuzen ere, abenduaren 1eko 11/2020 Foru Dekretu-Aruak, COVID-19aren bigarren olatuak eragindako ondorioak arintzeko zerga arloko presako neurri buruzkoak, 1. artikuluan jasotakoa.

2020an zenbatetsitako galerengatik 2019ko aparteko kenkaria aplikatu zutenek, hain zuzen ere, maiatzaren 26ko 5/2020 Foru Dekretu-Aruak, COVID-19ak eragindako osasun larrialdiaren ondoren ekonomia suspertzeko koiventurazko zerga neurri buruzkoak, 1. artikuluan araututakoa, kenkari hori aplikatu ahal izango dute, kasu horietarako aurreikusitako berezitasunekin, betiere baldin eta 2020an izandako galerak handiagotzat badira kenkari horren oinarri gisa erabilitako galera zenbatekiak baino. Ondorio horietarako, galeratzat hartuko da jarduera ekonomikoaren etekin garbi negatiboa.

Bi. Aurreko apartatuan aipatutako kenkaria aplikatzeko, baldintza hauek bete behar dira:

a) 2019ko zergaldian jarduera ekonomikoen etekin garbi positiboa lortzea.

b) 2020ko zergaldian jarduera ekonomikoen etekin garbi negatiboa izatea. Kenkariaren oinarria zergadunak lortutako etekin garbi negatiboa izango da, eta oinarri horrek ezingo du inola ere gaintu aurreko a) letran aipatutako etekin garbi positiboaren zenbatekoa.

Hiru. CBK eredu aurkezteko, ezinbesteko baldintza izango da aurretik pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren 2019ko autoliquidazioa aurkeztea.

Al resultado que arroje esta deducción deberá restarse, en su caso, la cuantía de la deducción aplicada en virtud de lo previsto en el artículo 1 del Decreto Foral-Norma 5/2020 antes citado.

Los contribuyentes que apliquen la deducción prevista en este artículo deberán computar como mayor rendimiento neto de actividades económicas en el impuesto sobre la renta de las personas físicas del periodo impositivo de 2020, el importe del rendimiento neto negativo computado como base de deducción en el periodo impositivo de 2019.

No obstante lo anterior, cuando la deducción se hubiera visto limitada por el importe de la cuota líquida del impuesto del contribuyente, el importe a computar como mayor rendimiento neto de actividades económicas del periodo impositivo de 2020, será el resultado que arroje el cociente entre la deducción practicada y el tipo medio de gravamen correspondiente al periodo impositivo de 2019.

El apartado 5 del artículo 1 del citado Decreto Foral-Norma 11/2020, de 1 de diciembre, establece que los contribuyentes deberán presentar una solicitud, y su apartado 6 dispone que el diputado foral del Departamento de Hacienda y Finanzas establecerá mediante orden foral el modelo de solicitud de aplicación de la deducción y los plazos y formas de presentación, así como otros aspectos relacionados con la aplicación de la deducción.

En su virtud,

DISPONGO

Artículo 1. *Aprobación del modelo CBK.*

Se aprueba el modelo CBK «Deducción por compensación de pérdidas en actividades económicas», que se adjunta como anexo a la presente orden foral.

Artículo 2. *Ámbito subjetivo de la presentación del modelo CBK y requisitos exigidos.*

Uno. Podrán presentar el modelo CBK aquellos contribuyentes del impuesto sobre la renta de las personas físicas que obteniendo rendimientos de actividades económicas en los períodos impositivos de 2019 y de 2020, soliciten la aplicación de la deducción extraordinaria de 2019 por pérdidas en 2020, prevista en el artículo 1 del Decreto Foral-Norma 11/2020, de 1 de diciembre, sobre medidas tributarias urgentes para paliar los efectos de la segunda ola del COVID-19.

Quienes aplicaron la deducción extraordinaria de 2019 por pérdidas estimadas en 2020 regulada en el artículo 1 del Decreto Foral-Norma 5/2020, de 26 de mayo, sobre medidas tributarias coyunturales destinadas a la reactivación económica tras la emergencia sanitaria del COVID-19, podrán aplicar esta deducción, con las especialidades previstas para estos casos, siempre y cuando las pérdidas obtenidas en 2020 sean mayores que las pérdidas estimadas que sirvieron de base de aquella deducción. A estos efectos, se entenderá por pérdidas el rendimiento neto negativo de la actividad económica.

Dos. Para aplicar la deducción a la que se hace referencia en el apartado anterior se deberán cumplir los requisitos siguientes:

a) Obtener en el periodo impositivo de 2019 un rendimiento neto positivo de actividades económicas.

b) Haber obtenido en el periodo impositivo 2020 un rendimiento neto negativo de actividades económicas. El rendimiento neto negativo obtenido por el contribuyente constituirá la base de la deducción, la cual en ningún caso podrá superar el importe del rendimiento neto positivo al que se ha hecho referencia en la letra a) anterior.

Tres. El modelo CBK podrá presentarse siempre que se haya presentado previamente la autoliquidación del impuesto sobre la renta de las personas físicas correspondiente al periodo impositivo de 2019.

3. artikulua. CBK ereduaren kenkaria aplikatzeak dakarzan betebeharrak.

Kenkaria aplikatzen duten zergadunek 2020ko zergaldiko pertsona fisikoen errentaren gaineko zergan jarduera ekonomikoan etekin garbi handiagotzat hartu behar duten zenbatekoa 2019ko zergaldian kenkariaren oinarri gisa konputatutako etekin garbi negatiboa izango da.

Aurrekoa hala izanik ere, kenkaria zergadunaren zergaren kuota likidoak mugatu duenean, 2020ko zergaldiko jarduera ekonomikoan etekin garbi handiagotzat hartu beharreko zenbatekoa eragiketa honen emaitza izango da: aplikatutako kenkaria zati 2019ko zergaldiari dagokion batez besteko karga tasa.

Zergadunek, kenkari honekin batera, lehen aipatutako 5/2020 Foru Dekretu-Arauaren 1. artikulukoa ere aplikatu badute, aplikatutako kenkari guztiengatik artikuluko honetan xedatutakoa hartuko dute kontuan.

4. artikulua. Informazioaren edukia.

Bat. Eskaeran adierazi behar da jarduera ekonomikoak zer etekin garbi negatibo izan duen 2020ko zergaldian. Ereduan jaso beharreko gainerako datuak automatikoki eskuratuko dira, pertsona fisikoen errentaren gaineko zergarengatik aurrez aurkeztutako 2019ko autolikidaziotik abiatuta, edo Zerga Administrazioak egindako egiaztapenaren emaitza kontuan hartuta.

Bi. Jarduera ekonomikoak egiten dituzten zergadunek 2019ko zergaldiagatik batera tributatzea aukeratu badute, eskaera bakarria aurkeztuko da. Eskaera horretan, zergadun bakoitzak individualizatuta adierazi behar du zer etekin garbi negatibo izan duen jarduera ekonomikoan.

5. artikulua. Eredua aurkezteko eta identitatea frogatzeko moduak.

Bat. CBK eredia internet bidez aurkeztu behar da, «Zergabidea» plataforma erabiliz, ekainaren 28ko 320/2017 Foru Aginduak, Gipuzkoako Lurralde Historikoko zergen Foru Administrazioarekiko harremanetan bitarteko elektronikoa erabiltzeko obligazioa arautzen duenak, ezarritakoaren arabera.

«Zergabidea» plataforma <https://zergabidea.gipuzkoa.eus> atarian dago eskuragarri. Ogasun eta Finantza Departamentuaren webgune ofizialaren bitartez ere iritsi daiteke bertara <https://www.gipuzkoa.eus/eu/web/ogasuna> helbidean sartuta.

Bi. CBK eredia aurkeztu dutenen identitatea frogatzeko, sistema hauetako bat erabili ahal izango da:

- Sinadura elektronikoko ziurtagiri elektronikoa onartu edo kualifikatuetan oinarritutako sistemak.
- Zigilu elektronikoko ziurtagiri elektronikoa onartu edo kualifikatuetan oinarritutako sistemak.
- Gipuzkoako Foru Aldundiak bere araudian xedatutakoari jarraituz ematen duen pasahitz operatiboa.

6. artikulua. CBK eredia aurkezteko epea.

2021eko urtarrilaren 1etik otsailaren 15era bitartean aurkeztu behar da CBK eredia.

Epe hori behin bukatuta, ezingo da eskatu kenkaria aplikatzea, ezta CBK eredia aurkeztu ere.

Azken xedapen bakarria. Indarrean jartzea eta aplikatzea.

Foru agindu hau Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu eta biharamunean jarriko da indarrean.

Donostia, 2020ko abenduaren 14a.—Jokin Perona Lerchundi, Ogasun eta Finantza Departamentuko foru diputatua.

(6856)

Artículo 3. Obligaciones derivadas de la aplicación de la deducción del modelo CBK.

Los contribuyentes que apliquen la deducción deberán computar como mayor rendimiento neto de actividades económicas en el impuesto sobre la renta de las personas físicas del periodo impositivo de 2020, el importe del rendimiento neto negativo computado como base de deducción en el periodo impositivo de 2019.

No obstante lo anterior cuando la deducción se hubiera visto limitada por el importe de la cuota líquida del impuesto del contribuyente, el importe a computar como mayor rendimiento neto de actividades económicas del periodo impositivo de 2020, será el resultado que arroje el cociente entre la deducción practicada y el tipo medio de gravamen correspondiente al periodo impositivo de 2019.

Los contribuyentes que hubieran aplicado la deducción prevista el artículo 1 del susodicho Decreto Foral Norma 5/2020 y apliquen esta deducción, aplicarán lo dispuesto en este artículo, por el conjunto de las deducciones aplicadas.

Artículo 4. Contenido de la información.

Uno. En la solicitud se consignará el importe del rendimiento neto negativo de la actividad económica obtenido en el periodo impositivo de 2020. El resto de los datos del modelo se obtendrán automáticamente de la autoliquidación del impuesto sobre la renta de las personas físicas correspondiente al periodo impositivo de 2019 previamente presentada o, en su caso, del resultado de la comprobación efectuada por la Administración tributaria.

Dos. Se deberá presentar una única solicitud cuando contribuyentes que ejercen actividades económicas hubieran optado por tributar conjuntamente en el periodo impositivo de 2019. En dicha solicitud los contribuyentes consignarán de manera individualizada los rendimientos netos negativos de actividad económica por cada uno de ellos.

Artículo 5. Formas de presentación del modelo y acreditación de la identidad.

Uno. El modelo CBK se deberá presentar a través de Internet, desde la plataforma «Zergabidea», con arreglo a lo previsto en la Orden Foral 320/2017, de 28 de junio, por la que se regula la obligación de relacionarse con la Administración tributaria foral del Territorio Histórico de Gipuzkoa por medios electrónicos.

La plataforma «Zergabidea» está disponible en el portal <https://zergabidea.gipuzkoa.eus>. También se puede acceder a la misma a través de la página web oficial del Departamento de Hacienda y Finanzas, <https://www.gipuzkoa.eus/es/web/ogasuna>.

Dos. La acreditación de la identidad de las personas presentadoras del modelo CBK podrá efectuarse utilizando:

- Sistemas basados en certificados electrónicos, reconocidos o cualificados, de firma electrónica.
- Sistemas basados en certificados electrónicos reconocidos o cualificados de sello electrónico.
- La clave operativa emitida por la Diputación Foral de Gipuzkoa de conformidad con lo dispuesto en su normativa reguladora.

Artículo 6. Plazo de presentación del modelo CBK.

La presentación del modelo CBK deberá realizarse entre el 1 de enero y el 15 de febrero del año 2021.



Una vez finalizado dicho plazo no se podrá solicitar la aplicación de la deducción, ni presentar el citado modelo CBK.

Disposición final única. Entrada en vigor y aplicación.

La presente Orden Foral entrará en vigor el día siguiente al de su publicación en el BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa.

San Sebastián, a 14 de diciembre de 2020.—El diputado foral del Departamento de Hacienda y Finanzas, Jokin Perona Lerchundi.

(6856)

 <p>Gipuzkoako Foru Aldundia Diputación Foral de Gipuzkoa Ogasun eta Finantza Departamentua Departamento de Hacienda y Finanzas www.gipuzkoa.eus/ogasuna</p>	<p>Jarduera ekonomikoko galerak konpentsatzeko kenkaria Deducción por compensación de pérdidas en actividades económicas</p>	
	<p>Ekitaldia Ejercicio</p>	

IDENTIFIKAZIOA / IDENTIFICACIÓN

IFZ / NIF	Deiturak eta izena / Apellidos y nombre
-----------	---

2019ko 109 EREDUAREN DATUAK / DATOS DEL MODELO 109 DE 2019

<i>Jarduera ekonomikoen etekina</i> Rendimiento de actividades económicas	01	
<i>Oinarri likidagarri orokorra</i> Base liquidable general	02	
<i>Oinarri orokorraren kuota osoa</i> Cuota íntegra general	03	
<i>Atxikitako elementuen irabazien doikuntza</i> Ajuste ganancias de elementos afectos	04	
<i>Batez besteko zerga tasa</i> Tipo medio de gravamen	05	

ETEKIN NEGATIBOAK 2020ko JARDUERAN / RENDIMIENTOS NEGATIVOS EN ACTIVIDAD 2020

<i>Aitortzailearen etekin negatiboa</i> Rendimiento negativo declarante	06	
<i>Ezkontide edo izatezko bikotearen etekin negatiboa</i> Rendimiento negativo cónyuge o pareja de hecho	07	

AITORPENAREN LABURPENA / RESUMEN DE LA DECLARACIÓN

<i>Jardueraren kuota</i> Cuota actividad	08	
<i>Kuota likidoa</i> Cuota líquida	09	
<i>Galeren konpentsazioagatik kenkaria (zenbateko hori itzuliko da, salbu eta 2020ko uztailean CBK eredu bat aurkeztu bada. Kasu horretan, zenbatekoa 10. laukitik deskontatuko da)</i> Deducción por compensación de pérdidas (se devolverá este importe salvo que se hubiera presentado un modelo CBK en julio de 2020 en cuyo caso se descontará el importe de su casilla 10)	10	

JARDUERA EKONOMIKOEN ETEKINA, 2020ko 109 EREDUAREN OINARRI OROKORREAN INTEGRATU BEHARREKO ZENBATEKOA / RENDIMIENTO DE ACTIVIDADES ECONÓMICAS, IMPORTE A INTEGRAR EN LA BASE GENERAL DEL MODELO 109 DE 2020

AITORTZAILEAK 2020an INTEGRATU BEHARREKOA INTEGRACIÓN 2020 DECLARANTE	11	
EZKONTIDEAK EDO IZATEZKO BIKOTEAK 2020an INTEGRATU BEHARREKOA INTEGRACIÓN 2020 CÓNYUGE O PAREJA DE HECHO	12	